

KOTIZATZERA BEHARTZEN GAITUZTE, LAN EGITEA ERAGOZTEN DIGUTE!

Urtarrilaren 28an Españaiko Gobernuak pentsioen murrizketa basatia onartuko du. Planteatzen diren neurrien artean, besteak beste, honako hauek daude: erretiro adina 65 urtetik 67 urtera atzeratzea, pentsio ordaindua jasotzeko kotizatu beharreko urteak gehitu, pentsio berrien diru kantitatea murriztu (pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko urte zenbaketa 15 urtetik 20 urteetara zabalduz edo pentsioaren %100 kobratzeko urteen kopurua 35etik 37ra pasatuz) edo pentsioek eros-ahalmenari eusteko betebeharra kentzea, pentsionistak bizi baldintza prekarioagoa eta duintasunik gabekoetara kondenatuz.

Egungo Gizarte Segurantzaren sistema aldatzeko erabiltzen diren argudioak faltsuak dira. Erreforma ez da egokitzapen teknikoa ezta beharrezko gaitza ere. Hain zuzen ere, erreforma honen atzean dagoen asmoa berez eskasa, inposatua eta gabezi ugari dituen babes sozialaren eredu publikoa eraistea da.

Gainera, erreforma honekin inposatu nahi diren neurriek desberdintasun sozialak areagotu eta oinarritzkoak diren eskubide eta bermeetan atzera pausu nabarmenak eragingo dituzte.

Eta hau dena, kapitalaren eta finantza merkatuaren mesedetan eta bereziki bankaren mesedetan, bera baita geure pentsioen kontura negozioa egingo duena.

Hartu nahi diren neurriek emakume, gazte eta etorkinen egoera okertuko dute. Pentsio bat eskuratzeko oztopoak jartzeak, milaka eta milaka lagun eskubide hori gabe uztea dakar, eta bereziki, prekariedade gehien pairatzen duten kolektibo horiek.

Nafarroako pentsionistei dagokionez, jadanik 30.000tik gora pobreziaren mugatik behera bizi dira. Emakumeen pentsioak batz bestekoaren %30 baxuagoak dira, gizon-emakumeen arteko ezberdintasunak direla eta. Lan merkatuan aritu den emakume baten pentsioa 600-650 ingurukoa da, alargun pentsioa ez da 600 eurotara heltzen eta etxeko langileena berriz 450etik beherakoa da.

Gaztediaren erdia langabezian dago. Emakumeak dira lan munduan prekariedade gehien pairatzen dutenak. Gainera, lan produktiboa eta erreproduktiboa beraien gain uzteak beren bide laborala etengabe eten behar izatea suposatzen du: lanaldi partzialeko kontratuak, zaintzarako eszedentziak,...

Etorkinen kasuan berriz, asko lan merkatu ezkutuan eta kotizatu gabe ari dira, honek prestazioetarako eskubiderik ez izatea suposatzen duelarik. Erreforma honekin, aurrera begira ere ez dute izanen.

Jendartearen pobretze orokor bat bultzatzen ari da, jada oso kezkarria denean pobreziak berak gure lurraldean duen pisua. Bitartean, Administrazio publikoek gure dirua ingurunearentzako oso kaltegarriak diren makro azpiegiturretan xahutzen dute (AHT, erraustegia, Nafarroako Kanala,...).

Gaurko ekintza honen bidez, langabezia dauden pertsonen egoera azpimarratu nahi dugu. Nafarroan jada, 43.000tik gora daude. Pertsona hauei kotizatzea exijitzen zaie, lanean aritzea galarazten zaienean.

Idatzi hau sinatzen dugun eragileok Españako Gobernuri zein alderdi politikoei pentsioen murrizketa guztiak bertan behera uztea eskatzen diegu. Ondasunaren bidezko banaketa, sistema fiskal justuago bat, kalitatezko enplegua sortzea eta, kendu beharrean, eskubide sozial gehiago ekarriko duten erreformak behar dira. Hots, bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat, non ekonomia pertsonen mesedetan egongo den, eta ez alderantziz.

Honengatik guztiagatik, urtarilaren 27ko greba orokorraren deialdiarekin bat egiten dugu. Halaber, dei egiten diogu jende guztiari egun horretan, arratsaldean, eragile sozialek Nafarroako eskualde desberdinetan deitutako mobilizazioetan parte hartzera: Altsasu, Lizarra, Tuter, Tafalla, Bera, Zangotza, Leitza eta Iruñea. Azken mobilizazio hau arratsaldeko 19,00etan Autobusetatik abiatuko da.

Orain arte atxikitutako eragileak:

ELA – LAB- STEE/EILAS- EHNE- HIRU- CGT- ESK - SOS Racismo- Bilgune Feminista- Emakume Internazionalistak- Barañaingo Hagin taldea- Altsasuko Feministak- Askapena- EHK- Ikasle Abertzaleak- Eraldatu- Asambleak- Libertaria- La Hormiga Atómica- Sasoiak– Mugarik Gabe- Sortzen-Ikasbatuazeko langileak- Ekologistak Martxan– Itoizko urtegiak mehatxaturiko auzokideen plataforma- AHT Gelditu Elkarlana- Lurra